



Elixabete Garmendia

Azken hiruzpalau urteotan garabi erraldoiek gorpuztu dute gure paisaia. Garabiak ezkututzen joan ahala txanpinoiak bezala azaleratu dira era guztietako eraikinak: bloke galantak, errenkan jarritako txalet ustekoak, aberats berrien fantasia *kitsch*-aren ispilu diren bakarkako etxebizitzak... Eraikin publikoz ere hornitu gara gero, Bilboko Euskalduna eta Donostiako Kursaalarekin, iragarki eta bi-deoklipetan hain ondo ematen duen Guggenheimaren senide kozkor horiekin. Eraikuntza nazional mota horren juzkua obren begirale gartsuenak diren jubilatuen esku utzita, beste eraikuntza nazionala, orubea oraindik garbitu gabe daukana, garabiak altxatzeko ahaleginetan dabilena, horixe izango dugu hizpide.

Era ezberdinetako ingeniari eta arkitektoak beharko horretarako. Politikariak eta gizarte eragileak lehenengo eta behin, baina atzera geratu gabe kultur jendea. Izan ere, eraikuntza nazionalaren egitura mamiz beteko bada, bizia eta erakargarria izango bada, eta ez noizbait abandonaturik geratutako eskeleto patetiko horietako bat, kulturgintzak eman beharko dio hatsa. Historian zeharreko Pizkunde eta Berpizkundeetan hala izan da, nola gurean hala beste herri batzuetan ere. Eta orain, bi milagarrena ken bat honen hondarrear, halako kinka batean gaude.

Aurreko urteetan ere garbi geratu da kulturgintza, egon, bizirik dagoela; aktibitatea ikaragarria dela, programazioa agendarik zabalena betetzeko adinakoa. Eraikinen azpiegituraz ere osatuxe gaude. Martxa horrek ez du gelditu behar, baina hau, hausnarketarako garaia da batez ere. Kulturgintzak eraikuntza nazionalan bete behar duen eginkizunaz jabeturik, baten batzuek ekin diote hausnarketari horri.

Euskaltasuna identitate kultural eta nazional gisa eraikitzea etorkizuneko eredu politikoa adostea bezain garran-

tzitsua da, honek ere —eredu politikoak— eragina barden arren. Euskaltasuna eraikitzea ez da baldintzak ahalik eta hoberenak izango direnerako eginkizuna, gaur egunekoa baizik.

Baieztapen hau Ramon Zalloren eskutik dator. Zehatzago esanda, berak koordinatu eta Patxo Idoiaga eta Joxerra Garziarekin batera *Propuestas para un nuevo escenario: democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria* liburu-rako egindako txostenean. Hiru irakasleek esparru komunikatibo eta kulturala jorratzen dute Manu Robles-Arangiz Institutuak argitaratu duen liburu horretan.

Lanerako txostena da, ez *best seller*-a, Unibertsitateko irakasle horiek eskaintzen dutena; pretentsio estilistikorik gabea, tarte batzuetan baita lerratua eta gainditua ere, eztabaidagarria eta eztabaidatu beharrekoa. Hain zuzen ere geziak dieran bezala, kulturgintzak egun bizi duen kinkaren bihotzean jotzen duelako bete-betean. Aurtengo urteak kulturgintzaren arkitekturari utzi duen ekarpenik interesgarrietakoa.

Xingolak eta mutxikoak

Urriaren 9an Baionan Euskal Departamenduaren alde egindako elkarretaratzeak hamar milakoaren marka hautsez gain izan ditu kontuan hartzeko beste elementu batzuk ere, kulturaren ikuspegitik azter litezkeenak. Bizpahiru elementu sinboliko azpimarratu nahi nituzke. Elkarretaratzera deitzen zuen orriak harrijasotzaile baten irudia zuen motibotzat, gustu artistiko handirik gabekoa, dena esan behar bada, baina esanguratsua: ez zen halterofilo bat, harrijasotzaile txapelduna baizik. Ibilian zehar euskal folkloreko musika eta koreografia izan ziren bidaide. Eta bukaeran berriz, jende andana mutxikoak dantzatzeko. Dantza korala berau, jende multzoarentzat egokia oso, eta kasu honetan berritu eta garatu ere egin zena; ohiko jauzi-ekzer-eskuin eta abarrez aparte, Euskal Departamendua! entzuten zitzaion zuzendariari. Kontua da hautetsi zenbaitek xingola zuri-gorri-urdina zeramala bularrean, fran-

tsestasunaren sinbolo. Baina elkarretaratzeari zentzu ludi-ko eta errituala emateko garaian euskal folkloreak balio izan zuela horretarako. Harrijasotzaile karikatureskotik hasi eta mutxikoen dantza zaharberritura, Departamenduaren aldarrikapenak euskal jantzia zuen soinean. Zalan-tzarik gabe, erakargarria eta integratzailea gertatzen dela-ko jende askorentzako.

Hegoaldean pentsaezinezkoa gertatzen zaigu horrela-ko elkarretaratze bat, banda gorri-horiak eta euskaltasuna-ren sinboloak bere baitan hartuko lituzkeena. Ziur naiz Iparraldekoak lezio bat ematen ari zaizkigula. Mestizajea ahotan horrenbeste erabili eta gero nola ez ditugu uler-tzen «leialtasun konpartituak»? (espresioa Zallo eta kon-painiarena da).

Hizkuntz gatazkatik jokora

Egin liteke —egin da eta egiten da oraindik gure artean— elebakartasunaren diskurtsoa. Har liteke hori paradigma-tzat eta gizaki eta gizatalde puru-puruak irudikatu, kutsa-durarik gabekoak hizkuntza eta kulturari dagokionean behintzat. Nork eskaintzen du bere burua horretarako? Zorionez ala halabeharrez, Aralargo puntara joanda ere nekez aurkituko ditugu horrelakoak. Artzainen txaboleta-ra *El Diario Vasco* iristen da puntual, eta apenas beste egunkaririk.

Ingururik aurrerakoienetan mestizajea aldarrikatzen den bitartean, gurean akats modura sentitzen dugu geure nahasketa. Egungo euskal hiztun garbienak ere, kulturari dagokionez, euskal-espainiar edo euskal-frantses gara, eta azkenaldian gainera diasporako euskal-amerikanoak —an-glosaxoi nahiz latino—, euskal-australiarren bat tarteko, ari zaizkigu ugaltzen, aleka, belaunaldi berrietan. Garaia da errealitate horri aurrez aurre begiratu eta kulturgintza-ren estrategiak horren baitan garatuz joateko. Egia da ezarpenaren bidetik etorri zaigula eta datorkigula oraindik ere neurri handian bigarren kultura hori eta hor stopa jar-tzea bidezkoa da. Baina gurea nahi eta ahal duguneraino

zabalduta eta garatzen ari garen neurrian, besteari, auzokoa izanik gure ere bad(it)ugun hizkuntza eta kulturari edo kulturei beste modu batean heldu beharrean gaude.

Iparraldeko frantsesak eta Hegoaldeko gaztelarak munduan ibiltzeko tresna egokia ematen digute, batak zein besteak kultur unibertso garatuak eskaintzen dizkiguten neurrian. Zergatik ez hori aberastasun modura aitortu, eta areago, «inposizioz» etorri zaigun horretaz gain auzokoarenaz jabetzera ere jo? Tamalez, gure hezkuntza sistema huts egiten ari da hor. *Euskaldunon Egunkaria*-k argitaratu berri duen txostenak erakusten du zeinen gutxi irakasten den hezkuntza arautuaren barruan gaztelera Iparraldean eta are gutxiago frantsesa Hegoaldean. Hezkuntza sistema ez ezik, gizarte osoa makurtu da ingelesaren nagusitasun erreal eta ustezkora, hurbilago izanik eskuragarriago eta neurri batean funtzionalago ere izango lukeenaren kaltetan. Garai berri hauetan, Iparraldeko eta Hegoaldeko dinamikek elkarren sinergiak hobeto aprobetxatuko badiuzte, planteamendu berria egin beharra dago hezkuntza sisteman, auzoko bigarren hizkuntza horri logikaz dago-kion tokia emateko. Zelai berberean egon nahi badugu, badugu zer jokaturik.

Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetx*-en hitzetan, besteak beste hauxe:

Erdarak lagun diezaioke euskarari, euskarak bere estatusa eta bere funtzioen errepertorioa osa dezan. Eta euskarak lagun diezaieke gaztelaniari eta frantsesari beren korpusa beren birus ideologiko zapaltzaile horretatik kanpo egiteko.

Saramago Bilbon

Paris eta Lisboa arteko bidaia presatu batean, Saramagok Sondikan hartu zuen lur eta Bidebarrietan jaulki esateko zituenak, entzuleak hunkituta ez ezik, txora-txora eginda utziz. Eta hau dena bere liburu baten euskarazko itzulpena aurkezteko. Jon Alonsori *Lisboako setioaren historia* itzultzearen merituz gain, Nobel Saria Euskal Herrira eka-

rri izanarena dagokio. Nolanahi ere, denoi igo digu autoestima, nerabeak «ze polita zaren» entzuten duenean bezala. Nobel bat euskarak erakarrita: exotismoaren tiradizoa tartean seguru asko, zalantzarik gabeko idazle gizatiar baten aitortpena utzi digu opari.

Izan ere, horrelakoen beharrea gaude oraindik, eta luzaz, seguru asko. Beste bisitari ilustre asko ekartzen duen jazoerak, Donostiako Zinemaldiak, konplexuz betetzen gaitu urtero. Badakigu zinemaren industria basatia dela, dirutzak irensten dituela, azpiegitura behar dela, tradizioa, eta hori dena ez dela inprobisatzen... Baina urtea joan eta urtea etorri, Zinemaldi duin eta hirian ondo erroteriko bat izan, lastoaren artean zinemagintza aurrerakoiaren alde ere apustu egin, eta aborigenok, daukagun guztia pilatuta ere, ezin bada karrera horretan sartu. Euskal Zinemaren Maratoiak gure eskasia erakusten du ezinbestean urtetik urtera.

Bidebatez, datu esanguratsu bat hemengo ikusleen sentsibilitatearen alde: *Solas*, Benito Zambranoren film andaluziar-unibertsala, Donostiako aretoetan egon da luzaroen Estatu osoan. Eta hemen, muestrarako ere labeldun filmik erakutsi ezinik. Nahi litzateke bada bisitariak gure kultura gastronomikoarengatik baino beste zerbait gehiagorengatik ezagut gaitzaten. Ez da, ordea, bisitari kontua bakarrik. Geuron buruak noizbait zineman errekonozitu beharko ditugu bada, gure izaera, ohitura, tankera, sentipen eta arazoekin. Ispilu hori falta zaigu. Geurontzako, eta kanpora zabaltzeko. ♣